



EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXVII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



RUGBI EGITARAUA 2018

Ekainak 2, Mojategiko Udal Kiroldegian, Arrasate

10:30	ARABA	BIZKAIA
11:15	GIPUZKOA	ARABA
12:00	BIZKAIA	GIPUZKOA



ARAUDIA

ERRUGBIA 2018

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zuzendaritzak Errugbi Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Arrasaten, Mojategiko errugbi zelaian izango da, 2018ko ekainaren 2an. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

2004 eta 2005 urteetan jaiotako jokalariaik.

Guztira 25 jokalarik parte hartu dezakete: 15 titularrek eta 10 ordezkok. Aldaketak libreak izango dira, baina beti ere erdiko marratik eta jokoetarako osatuko den mahairako onespenearekin.

Foru aldundiak ateratako eskola kirolean lizentzia Rugbiko modalitatean duten neska mutilak parte hartu dezakete. Aipatutako lizentzia Eskolarteko Kirol Jokoak ospatuko diren egunean aurkeztu beharko da. Era berean talde bakoitzak beharrezko agiria ekarri beharko du.

2. JOKO ARAUAK

Jokalekuaren neurri maximoak 100x50 metrokoak izango dira.

4 zenbakikoa izango da baloia.

15 minutuko 2 alditan jokatuko da partida, eta 10 minutuko atsedenaldea izango da bien arten.

Entsegu bakoitzeko 5 puntu lortuko dute, transformazioak 2 (beti zutabeen parean jaurtiko dira) eta zigor-ostiko eta drop-ek 3. Berdinketa egonez gero honako hauen arabera erabakiko da zein den irabazlea: lehenik, lortutako entsegu-kopuruaren arabera; bigarrenik, zigor-ostiko kopuruaren arabera; eta hirugarrenik, 22 metroko marratik kanpo lortutako transformazio-kopuruaren arabera.



Partiden ordutegia:

10:30 H.	ARABA - BIZKAIA
11:15 H.	GIPUZKOA - ARABA
13:00 H.	BIZKAIA - GIPUZKOA

Jokalarien eskubide eta betebeharrak:

→ Honako eskubide hauek dituzte jokalariek:

- Baloia hartzekoa
- Baloiarekin korrika egitekoa
- Baloia atzerantz pasatzekoa
- Baloia duen aurkako jokalaria plakatzekoa
- Baloia ostikatzea

→ Honako betebeharrak dituzte jokalariek:

- Arauak, epailea eta jokalaria errespetatzekoa
- Plakaketa egiten badiote baloia ahalik eta azkarren askatzekoa
- Zutik jokatzekoa, inoiz ez lurrean
- Helduz plakatzekoa, kamisetatik tiratu eta aurkaria bota gabe. No se permiten la francesa, percutir ni empujar.
- Baloia jokatzen duen taldekidearen atzetik egotzekoa

Baloia jokoan jartzea

→ Erdiko sarea. Aldi bakoitzaren hasieran edo entsegu baten ondoren

- Non: Zelai erdiko marran.
- Nola:
 - Drop bidez, gutxienez 10 metro aurrera egin behar du baloia puntuak lortu ondoren.
 - Bi kasuetan 10 metrora egon behar da beste taldea



- Hogeita biko sakea. Baloia hilaren murratik irteten denean baloia.
 - Non: 22 metroko murratik.
 - Nola: Drop bidez, 22 metroko murratik aurrera egin behar du baloia

- Mele. Aurreratua edo baloi joko ezina denean
 - Non: falta egin den lekuan, markaketa-murratik eta alboko murratik gutxienez 5 metrora
 - Nola:
 - Melean bi taldeak lehiatzen dira
 - Baloia mele barruan bakarrik sartzen denean bultzatuko da.
 - 8 jokalarik
 - Gainontzeko jokalariek meleko azkeneko jokalarien hanken atzean
 - Mele erdikoak baloiarekin korrika egin edo baloia pasa dezake.
 - Beste mele erdikoa baloia jokoan jarri den murrak geratu behar da (mele tunelean), meleari itsatsia, mele atzera joan edo bertan geratu, jokoan kanpoko murrak zeharkatu gabe melean ez dauden jokarientzat.

- Albokoa. Baloia alboko murratik irteten denean.
 - Non: falta egin den lekuan, markaketa-murratik eta alboko murratik gutxienez 5 metrora.
 - Nola:
 - Honako hauek parte hartuko dute: jaurtitzailak, zazpi jokalarik (hiru jokalarik gutxienez) eta meleko erdilari batek. Errenkadako jokalarien gainera bota behar da baloia.
 - Ezin da altxatu
 - 10 metrora egon behar dira gainontzeko jokalariek.



- Ostikoa. Beste arau-hauste batzuk egiterakoan.
- Non: falta egin den lekuan, markaketa-marratik eta alboko marratik gutxienez 5 metrora
 - Nola:
 - Ostiko baten bitartez
 - 10 metrora egon behar du beste taldeak
- Kanporaketa:
- Aldi baterakoa: 2 minutu (jokalariari eta hezitzaileari azaldu arrazoia)
 - Aldi baterako kanporaketa indarrean dagoen bitartean kanporaturikoaren ordez beste jokalaria bat sartuko da
 - Jokalaria zigortuko da, eta ez taldea
 - Behin betikoa: aparteko kasuetan bakarrik (jokalariari eta hezitzaileari azaldu arrazoia)
 - Beste jokalaria bat sartu daiteke hori ordezkatzeko
 - Jokalaria zigortuko da, eta ez taldea

Segurtasunagatik aho-babeslearekin eta takodun botekin jokatu behar dute jokalariek (galerazita dago metalezko tako aldagarriak dituzten botak erabiltzea).

3. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrak sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo behar da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



4. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f.- Euskadiko Rugbi Federazioaren araudiak xedatzen duenari (IRB Sub19).

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.